

# LAG-EN AURRERAPENAREN AURKEZPENA DONOSTIAN 2016/12/13

**Tokia:** Egia Kultur etxea (Jaialai kalea, 21)

**Iraupena:** Ordu bat eta erdi

## Parte-hartzaileak

Izena	Udalerrria	Elkartea/erakundea/...
Nerea Mendikute	Donostia	-
Ixiar Ugalde	Eibar	-
Ainhoa	Donostia	-
Koldo Telleria	Donostia	Hiridunak Estudioa
Ana Ezeiza Agirre	Donostia	Udala
Hodei Arzak Urroz	Zerain	-
Javier Busselo Ortega	Donostia	-
Nerea Kortajarena	Errenteria	Gipuzkoako EHNE
Miguel Angel Crespo	Tolosa	Gipuzkoako Foru Aldundia
Xabier Ruiz Martín	Donostia	-
David Salomé	Donostia	-

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
-------	--------

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Jesús M <sup>a</sup> Erquicia Olaciregui	Lurralde Antolamendurako eta Plangintzarako Zerbitzuko burua
José Ramón Varela Balenciaga	Gipuzkoako Lurraldearen Antolamendurako arduraduna

## Laguntza teknikoak

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru

## Aurkezpena

Parte-hartzaileei, iritsi ahala, erregistro-orria datu pertsonalekin betetzeko eskatu zaie.

Fernando Uriondo Ispizua jarduneko Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendariak ekitaldiaren aurkezpen ofiziala egin du eta, oro har, parte hartzeko prozesuaren garapena azaldu du. Hala adierazi du prozesuak bi ardatz izan dituela: erakundeen parte-hartzea eta herritarren parte-hartzea. Lehen ardatzaren garapena azpimarratu du eta bidea eman dio Paisaje Transversali bigarren ardatzaren garapen azaltzeko.

### Parte hartzeko prozesuaren azalpena

Paisaje Transversaleko Iñaki Romerok eta Jon Aguirrek parte hartzeko prozesu orokorra aurkeztu dute, herritarrek parte hartzeko prozesu digitala eta presentziala nabarmenduta. Era berean, labur adierazi dute gaiaren, eremu funtzionalaren eta izaeraren araberako ekarpen kopurua.

### LAG Berrien Aurrerapen-dokumentuaren azalpena

Jesús M<sup>a</sup> Erquicia Olaciregui 97ko LAGetik bidean dauden egungo LAGetara iristeko gertatu den bilakaera deskribatu du. Jarraian, proposatutako Aurrerapen-dokumentua, atalak eta nobedadeak zehatz-mehatz azaldu ditu.

### Jendeak egindako galderak eta ekarpenak

Jarraian, bertaratutako jendearekin ireki den eztabaidarako txandan egindako galderak eta ekarpenak jasotzen dira:

+ Galdera: Nolako izango da LPPak LAG berrietara egokitzeko prozesua?

- Erantzuna: Eusko Jaurlaritzak 10 urteko epea ezarri du, baina LPP bakoitzak bere erritmo propioa izango du. Esate baterako, Donostialdeako LPPa behin betiko onartzeko 21 urte behar izan badira, ezin dugu bermatu planaren berrikuspena 10 urte hauetan egiteko gai izango garenik. Kontuan hartu behar dugu onartu genuen lehen LPPa 2005. urtean egin genuela eta Donostialdeakoa aurten egin dela. Hortaz, Aurrerapen honetan jasotzen diren kontzeptu asko planetan txertatuta daude dagoeneko. Gainera, Hiri-antolamenduko Plan Orokorrek (HAPO) LAG berrietan agertzen diren hainbat kontu barne hartzen dituzte jada, hala nola, bizitegi-kuantifikazioa. Eta hemendik aurrera onartzen diren HAPOak LAG berrietara egokitu beharko dira.

+ Galdera: Kontraesana dago Donostia eta Hernani artean 15.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten duen Donostialdeako LPParen eta "eraikitako hiria sendotzeaz" hitz egiten duten LAGen ikuspegiaren artean.

- Erantzuna: Ez dago kontraesanik. LPPa 2016ko LAGen bizitegi-kuantifikazioaren aldaketara egokitu da; horrenbestez, ez dago kontraesanik.

+ Galdera: Azaldu duzue urtarrilean EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak Aurrerapenaren gaineko txosten bat igorriko duela. Beste hainbat erakunde eta eragileren ekarpenak eskatuko dira? Parte hartzeko prozesu bat irekiko da?

- Erantzuna: Txostenaren eskaera Legeak xedatutakori jarraiki egiten da. Legeak xedatutakoa zabaltzen duen parte hartzeko prozesu bat egiteko asmoa badago ere, beste hainbat erakunderen ekarpenak jasotzen dituen, erabakia Sailburuordetzako talde berriaren mende dago. Baina hau dokumentu bizia da.

Orain Legeak xedatutakoa egingo dugu. Hau da, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen txostenak oinarri hartuta, 3 hileko epea irekiko da Administrazio guztiek ekarpenak egin ditzaten. Aurrerago, dokumentu berri bat prestatu ostean, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordeak beste txosten bat igorriko dute, eta hortik Hasierako Onespenera pasako da. Ekarpenak entzuteko hiru hileko epe horretan hain zuzen sartu behar dugu parte-hartzea. Talde berriarekin batera pentsatu behar dugu nolakoa izango den parte-hartze hori.